

**EDITH STEIN:  
ZIENTZI BIDETIK EGIAREN MAITASUNERA.  
BERE BIZITZA**

Bizitza honetan batzuk gorabehera handirik gabe joan ohi dira, aurrez norbaitek taxututako bide lau eta garbian bezala. Beste batzuek, ordea, ibilbide gorabeheratsua, nahasia, oztopoz eta aldaeraz betea izan ohi dute. Erraza ez da izango ez batzuen eta ez besteena, baina haiena eguneroko normaltasunean galtzen den bitartean, hauena bizi-bizia, koloretsua eta ikusgarria gertatzen zaigu. Bigarren hauen artean sartzen da bete-betean Edith Stein-en bizitza. Ez da inondik ere ohikoa, berezia eta korapilatsua baizik: familia judu bateko alaba, bera ere judua erlijioz eta kulturaz; filosofo handia, Husserlen ikasle eta laguntzailerik gogokoena; judu-erlijioa galdu eta jainkoga-be, ateo bilakatuko da; hogeita hamar urte zituela kristau erlijio katolikora bihurtzen da; artikulu zintifikoen idazle bikain eta emakumearen eskubideen aldeko hizlari punta-puntakoa; berrogeita bi urterekin karmeldar sartzen da, hau da, Santa Teresaren klausurako lekaimen artean; naziek harrapaturik, Auschwitz-eko kontzentrazio-eremuan gas-kameran hil zuten; Elizak santa izendatuko du judu karmeldar martiri hau aurtengo, 1998ko, urriaren 11n.

## 1. BRESLAU: HAURTZAROA: JUDUA

Breslau, Silesiako hiriburua, Alemaniako ekialdeko esparru ekonomiko eta kulturala dugu Edith Stein-en haurtzaroko gunea. Honela agertzen digu bere burua, bere jatorriari dagokio-



*Breslau, Edith Steinen jaioterria*

nez: "Ni, Edith Stein, Breslau-n jaio nintzen 1891ko urriaren 12an. Nire gurasoak, jadanik hila den Siegfried Stein, merkataria eta honen emazte Auguste (ezkongai zela Courant). Prusia-rra eta judua naiz".

Edith Stein-en gurasoak merkatariak ziren, basoak erosi eta oholak egitera emanak. Ekonomi aldetik etorkizun hobe izango zutelakoan Breslau-ra aldatu ziren 1889-1890 inguruan. Hiri hau Alemaniakoa zen garai hartan; geroago Poloniakoa izango da. Juduen artean familia ugaria Jainkoaren bedeinkaziotzat



Stein familia (1995). Txikiena Edith

zuten. Siegfried Stein eta Auguste Courant senar-emazteengan oso ongi betetzen da uste hori. Hamaika seme-alaba. Haietarik lau haurtzaroan hil ziren. Edith dugu gazteena. Ez zuen aita ongi ezagutzeko astirik izan; amaren berotasun eta maitasuna bai, ordea, hau urte asko bizi izan baitzen. Berak urte eta erdi zituela hil zitzaion aita. Familia erlijioari ongi atxikia zen eta giro hartan hazi eta hezi zen Edith judu-sinesmenean eta etxean zehatz-mehatz betetzen zen Jainkoaren Legean... Aita hil ondoren, amak hartu zuen bai seme-alaben heziera eta bai zur-merkataritza ere. Emakume kementsu eta saiatua zen eta lehenago zorretan sartua zen negozioa bide onera ekartzea lortu zuen. Seme-alaben artean Edith zuen bere kutuna; txikiena zelako eta, agian, Espiazio-egunean, *Yom Kippur*, israeldarren egun santuan jaioa zelako.



*Edith lau urterekin*

Haurtzaroan berezko diren gorabeherak eta gogo-aldaketak jasan zituen: orain bizi-bizi, bihurri eta zuhurtziarik gabea; gero ameslari, isil eta lotsati. Ama, Elsa alaba nagusia lagun zuela, arduratu zen Erna eta Edith bi txikien hezieraz. Edith buru argikoa, banakak izan ohi diren horietarikoa zen eta haurtzaindegiko garaia ez zuen gogoko izan; geroko ikastetxeko giroaz, ordea, pozez zorutzen zegoen.

## 2. IKASLE: KRISIA, JAINKOGABEA...

Ikasteko dohain bereziak zituen, adimen argia eta oroimen aparta. Eskolan bere etxean bertan baino ere ia pozago zegoela esango digu geroago berak. Nahiko harrigarri da hori, Edith-ek maitasun bizi-bizia baitzien bere etxekoei. Eskola-liburuak irentsi behar zituela zirudien, liburuek

liburutzen baitzuten; historia eta alemaniera zituen gogokoenak. Ilea apaintzen ari zitzaizkionean ere, han jarduten omen zuen irakurketa ezin etenda... Baina ustekabeen ikasketak bertan behera utzi eta bizilekuz aldatzen da. Kezkaz beterik zen. Adinak eta bizitzak berak espirituaren barnera dakartzan kezka eta galderak ziren. Senak eman zion ziurtasun osoz, geroago ere sarri agertu ohi zuen ziurtasunez, bizi-giro berria behar zuela. Hamburg-era doa Elsa Stein, bere ahizpa zaharrenaren etxera. Elsa Max Gordon dermatologo doktoarearekin ezkondua zen. Max eta Elsa fedegabeak ziren. Haien etxean erlijio-lorraztik ere ez zen nabari. Elsa haurdun zegoen, bere bigarren semetxoaren zain. Senar-emazte hauen arteko harremanak ez ziren on-onak. Urte hatzuk geroago, Edith-en esku-hartzeko eta zuhurak salbatu zuen bere ahizpa nagusi eta koinatuaren familia hausturarik gabe. Zortzi hilabete Hamburg-en zeramatzala amak bisita egiten dionean, neskatila sendoa aurkitzen du. Erlijio-arazoa honezkero ia konpondua duela uste du. Fedeari, familian jaso zuen judu-fedeari uko egiten dio zer egiten duen ongi dakiela eta askatasun osoz hartutako erabakiz... Beraz, jainkogabea, atea dugu. Bere neba-ahizpek ere, etxetik alde egindakoa, gurasoen fedeari ez ziotela eusten ohartzen da.

Amak ikasketei berrekiteko aholkua ematen dionean, poz-ozik onartzen du. Urtebeteko geldialdian egindako hausnarketa ongi etorriko zaio. Ikasketak jolas bat bezain gozo egingo zaizkio. Familiaren barruan ere goitik beherako aldakuntza izan du. Etxeko seinak pertsona heldu bihurtu da. Areago oraindik, famili bizitzatik urrunduz joango da apurka-apurka bere buruaren jabe izatera, askatasun bila. Guztiek sentituko dute berak izan ezik. Edith-ek duen bizitzarako egitasmoa hitz hauetan laburtzen du: *"Giza jendearen onerako gaude munduan"*. Esaldi honetan etikaren helburua zein garrantzitsua den haren bizitzan ageri da. Ideal horrek bete-betean harrapatu bizi zela dirudi: erantzukizun soziala eta giza solidaritza. Horrekin batera, familia ugaria ez du honezkero bere helburu.



Adiskide berriak egin ditu; hauek mirespenez begiratzen diote eta maite dute. Izan ere, dohain bereziak ditu ingurukoen izaera eta ideiak ulertzeko. Lagunartekoa, irekia, atsegina, gozoa da. Horrela, ikastaro, bilera, ikasle-ingurumari, elkarte sozial eta politikoetan harreman ugariak eta aukera apartak izango ditu...



Edith (eskuinean) Erna bere ahizparekin

Bere buruagan zuen ziurtasun hautsiez in hori kolokan hasten zaio, larriminak jota. Bere sentimendu eta aburuekin bat ez zetorren eleberri baten irakurketak artegatu, durduzatu egiten du. Nazkaz eta zalantzaz beterik uzten du aldi baterako. Etxean bertan izandako ezbehar antzeko batek ere larriminez bete zuen: ozta-ozta salbatu zen pozoitu gabe... Horrela zeharo larritu zen; bere buruarekiko errukiak hartu zuen eta pentsamendu ilun lanbrotsu horiek burutik kendu ezinik aritu zen luzaro. Baina azkenerako guztia gainditu zuen.

Ikasketei dagokienez, latin eta matematiketan murgiltzen da; baina historiak erakartzen du, beharbada, beste ezerk baino

gehiago. Bere espiritua egiaren irrikaz dago. Haren ikaskide batek honela diosku: "Oso langilea zen, baina haren abalegina ez zen bere burua erakustearren. Garai hartan oso apala zen... Beti uste izan dut alde handia zeramakigula beste guztioi ez jakintza arloan soilik, baina adinean ere, hura gainerako guztioi baino zentzudunagoa eta serioagoa baitzen. Pertsona orekatsua, barnealde aberatsekoa eta oso atsegina zela dut gogoan".

### 3. UNIBERTSITATEKO IKASLE ETA DOKTORE

Hogei urte zituela, batxilerra gorengo kalifikazioz amaitu ondoren, unibertsitateaz amestetan dihardu. Bere osaba David-ek, farmaziari zenak, medikuntzara bideratu nahi ditu Erna eta Edith, baina alferrik. Hau tinco dago berean. Ahaleginak egin zituen neskatala gazteei eder egin nahirik, gero bere asmoetarantz erakarri ahal izateko: bere etxean oporraldia pasatzera gonbidatu, txalupan erabili, txango zoragariak handik eta

Universität Breslau.

**Anmeldungs-Buch**

der

Studierenden der *Pharmazie u. Chemie*

Fräulein *Edith Stein*

gehoren, den *12. 11. 1911.*

immatrikuliert } den 28. April 1911  
und inskribiert }

*Edithen Unibertsitateko inskripzioko koaderno*

hemendik... Aho betean erantzun zion behin, bakoitzak bere dohainen eta joeren arabera ogibidea hautatu behar zuela. Edith-ek argi eta garbi zuen berea irakaskuntza izango zela. Bere sorterrian, Breslau-n ekingo die ikasketei. Unibertsitatean sartzen ziren emakumeak oso gutxi ziren garai hartan; buru argiko emakume banakei eskaintzen zitzaaien soilik aukera hori. Alemanierazko filologian, historian eta psikologian matrikulatuko da. Germanistikan eta historian, aukeratua zuen irakaskuntzako ogibiderako beharrezko<sup>3</sup> izango zitzaizkiolako hategi ere; psikologia, berriz, bere barneko egiaren egarri eta filosofi joerari erantzuteko. Giza existentziaren oinarri eta norabidea sakonki aztertu nahi ditu. Lehenago adierazi dugunez, Edith jainkogabea, atea da; baina egiaren bila ari da aspaldidanik. Judu-erlijioari uko egin zion kontzientzia argiz eta zer egiten zuen ongi jakinez. Hala ere bere espiritu aberats eta gartsua beteko duen egia aurkitu arte ez du onik izango...

Hönigswald eta Stern irakasleen eskolak hartzen ditu, gero-ko mintegietan pentsamenduaren psikologiaz zenbait lan idatziz. Ikerketa hauen guztien ondorioa hustasuna, ezereza da. Giza arimaren izaera ikertzen ari da Edith, eta metodo naturalista eta guztiz mekanikoa aurkitzen du, arimarik ez dagoela frogatu nahi diona. Jainkogabetasun modernoaren ondorioak argi eta garbi ikusten hasten da. "Arimarik gabeko psikologia" da askoren ahotan eta gogotan dagoena. Arima ez omen da ezer, arazoiz kontrakoa eta mitologiazko zerbait ez bada; eszetikoek errealtate horri erraz uko egiten diote, irribarre bur-lati bat ezpain ertzean taxutuz. Baina Edith-en adimena ez da horrekin asetzen... Zer egin? Mintegiko lanetan asko erabili behar izan du Husserl fenomenologoaren liburua: "Logische Untersuchungen". Liburu honek bere barruan benetako iraultza sortuko dio. Lan honetan, lehen aldiz, bere barruan zera-biltzan arimaren izaera eta giza existentziaren norabideaz zitu- en galdera larrirentzat erantzuna aurkitzen du. Husserl ez da- tor inola ere bat "arimarik gabeko psikologia" oinarritzat zuten maisuekin. Edith poz-pozik dago; irakasleak harri eta



zur gelditzen dira hark fenomenologian lortu duen jakintza zabalarekin. Mintegietan gaia ongi menderatzen duen aditutzat dute, argi bila hainbeste kontsulta berari eginez. Bai, Breslau-n bere etxean bezala dago. Miretsia da, baina bat-batean barruan dei bat bezala entzuten du, Breslau utzi eta Göttingen-en Husserl-en ondoan ikasten jarraitzekoa. Bere etxekoen ingurutik aldentzea dakar berriro ere honek eta haiek, erabaki horrek bat-batean harrapatu zituen eta,

kolpea jasan ezinik daude. Amak, bihotza hautsita, baina onartu egin zuen bere alabatxo maitearen joan beharra. Edith-ek berak diosku: *"Nire amak hau esaten zuen: zure ikasketak aurrera eramateko beharrezko bazaizu joatea, ni ez naiz horretan eragozpen izango"*. Baina ama triste dago. Udako ikastaro baterako banatzeak ez luke berez horrelako nahigaberik sortu behar, baina bihotzak diotso banakuntza hori uste baino sakonagoa izango dela. Ideologiazko urruntzea somatzen du batez ere Stein andreak: arbasoen Jainkoagandik aldentuz doakiola bere alaba maitea. Amaren erlijiotasun eredugarria gorabehera, garaiko pentsaera liberala iraziz doa tradiziozko



*Edith (behean) oporretan; Erna, haren ahizpa (eskuinean): Riesengömmen mendietan.*

familia judu haren baitan. Seme-alabek amari dioten begirune, benerazio eta maitasuna dira geratzen zaizkien gauza bakarrak... Edith-ek leialki laguntzen dio sinagogaraino, baina "han gehiago sartzen zaio ariman Jainkoagan erabat murgildurik den amaren debozioa, ospakizun liturgikoa bera baino".

Edith-ek berak ere banatze hori sakona izan litekeela somatzen du. "Senak eman zidan, neure barnean ikusten nuen banakuntza hura guztiz garrantzitsua izango zela". Jaio zen Breslau hiritik alde egitea, bere ondorio guztiakin, ingurune judutik irteera bezala zen. Baina Edith-en erabakia atzerazena zen. *"Orduan, neure bizitzan geroago ezagutu ditudan beste egoera batzuetan bezala, zirkin txiki bat nahiko izan zen loturarik sendoenak ziruditenak eten eta saretik ibes egiten duen txoriak bezala, askatasunez began egiteko"*.

Mundu berri baten barrena doa; giro itzaropentsua aurkitzen du; berak behar eta uste zuena. Eragozpenik gabe hartan murgiltzen da eta aldi berean giro hark hartzen uzten du bere burua. Hogeita bat urte ditu eta etorkizun liluragarri batez egiten du amets... *"Göttingen, hiri maite eta agurgarria! 1905etik 1914ra artean, hots, fenomenologiaren eskola goren-gorenean zegoenean, ban ikasi duenak ulertuko du soilik zer orotzazpen gozoa uzten duen izen honek guregan"*. Ez zen guztia ikastea. Lagunekiko harremanak, elkarrekin egiten zituzten jolasak, festak, mendialdera egindako txangoak... horra ikasle gazte haien amets eta hizipozerako osagairik gozoenak. Rosa Bluhm-Guttman zen haren ikaskide eta adiskide minetariko bat. Hona hemen, labur bildurik, honen lekukotasuna: *"Etxebizitza txiki batean bizi ginen biok. Polit-polita zen; logela, ikasgela eta sukaldetxo bat zituen. Jatordu nagusiak kanpoan egin obi genituen, baina gosariak eta askariak guk geuk prestatzen genituen. Edith-ek nik bezain ongi zekien janaria prestatzen. Edith zen nik ezagutu dudana emakumerik argiena, eta goi-mailako emakume bikainak asko ezagutu ditut. Gu izan ginen unibertitate bonetan sartutako lehen emakumeak; horregatik, benetak 'elitea' osatzen genuela esan behar. Edith-ek egia aurki-*

*tzeko irrika bizia zuen. Bere adimen apartarekin sakonki ikertzen zuen edozein arazo, guztiz argitu arte*

Edith Göttingen-era datorrenerako, hango eskolaren goren-gorena ia iragana da. Izenik esanguratsuenak, Adolf Reinach eta Hedwig Conrad-Martius, Alejandro Koyré, Dietrich von Hildebrand eta Juan Hering irakasleen artean sartu berri dira. Dena-dela, oraindik hango giroa Husserl-ek betetzen du eta bere ikasleek "Maisua" deitzen diote beste gabe. Edith lehen aldiz haren aurrean agertzen denean, harrotasunez aitortzen dio jadanik irakurria duela beraren "Logische Untersuchungen" ("Logikako Ikerketak") obraren bigarren liburua. "Bigarren liburu osoa bai gero? Hori gauza handia da!, diotso irribarrez Husserl-ek; eta horrela haren ikasleen artean onartua da. Denbora gutxi barru, guztien artean nabarmendu zen, Husserl-en ikasleen artean gogokoena izateraino. Zientzia, izenak berak dioenez, jakitean datza... Eta jakitean egia atzematen dugu. Egia, Husserl-en iritziz, "ziurtasun argitsua" da eta hori da uste, aburu, iritzi edo komentzimendu itsutik bereizten duena.

Husserl ez da kristau fededuna. Begirune handia dio erlijioari, baina filosofia harentzat gauza guztien gaineretik dago.



1915.ean, lehenengo mundu-gerratean: Edith ikasle zela Gurutze Gorrian sartu zen bere borondatez gaixozain izateko

Horra arte ongi jarraitu dio Edith-ek, baina arrazoiaren muga naturaletik harantz beste mundu berri bat hasten delako susmoa du. Behintzat "filosofiak, zientzia estriktoa den aldetik", ez dituela nahiera guztiak asetzen uste du berak. Beraz, oraindik egiaren bila jarraitzen du.


Edith-ek Max Scheler fenomenologoa ezagutzen du Göttingen-en. Honen "filosofia profetikoak" ezin ezabatuzko marka uzten du Edith-engan. Scheler München-etik dator. Judu konbertitua da eta Edith entzule zuen garaian batez ere erlijio katolikoaren ederraz liluraturik zen. Honen lanak, "Der Formalismus in der Ethik und die materielle Wertethik" ("Formalismoa Etikari eta Balioen Etika materiala"), Husserle-en ideiak baino oihartzun biziagoago izan du bizitza intelektualean. Fenomenologo gazteak haren inguruan biltzen dira. Zerbait berezia du gizon honek. "Beste inorengan ez dut hain garbi ikusi *jenialtasuna*"- esango digu Edith-ek. Haren bitartez mundu ezezagun baten aurrez aurre ikusiko du bere burua. Kristautasuna eta honen inguruko guztia ongi aztertzea merezi duen gaitzat du jadanik. Jenio baten zorrotzasunez agertzen dio Scheler-er Edith-i erlijioak soilik egiten duela gizona edo emakumea egiazko gizon edo emakume. Ekintza moralaren oinarritzat du apaltasuna, horren helburua Jainkoagan murgiltzea, berpizkundé berria besterik ez delarik.

Orain arte ez dio inork ere hitz egin horrela. Honek ez du bere burua itsutzen uzten Scheler-en oratoria gartsu eta distiratsua, baina haren edukiak bai zirrara bizia egin ziola. *"Hautzan zen nire leben burbilketa ordura arte ezezaguna nuen mundu borretara. Oraindik ez ninduen federa eramane. Baina, orduz gero, tsu-itsuan bazterrera ezin utzizko 'fenomenoen' ingurumaria agertu zidan"*. Kristau-mundurantz hurbiltzeak bere bihotzaren ezereza agertu dio Edith-i, sorkarrietan dizdizka diharduen betikotasunaren arazoa... Scheler-ek benda bat kendu dio begietatik eta ezin du ez ikusi egin errealitate horren aurrean. Begiak garbi direla begiratu behar dela ikasi du bere maisuarengandik. Hala egiten du. Ordurarteko hezie-

rak eta giro razionalistak oharkabeen sortu dizkion aurreiritzi eta eragozpen guztiak berez-berez aienatzen dira, eta federearen mundua agertu zen bat-batean haren begietan. Mundu horretan bizi ziren, berarekin egunero harremana zuten eta berak miresten zituen hainbat pertsona. Mundu horrek gutxien-gutxienez gogoeta sakon bat merezi zuen.

Miresten zituen horien artean Adolf Reinach irakasle gaztea dago. Hau Husserl-en esku eskuina zela esan genezake, eta irakasle eta ikasleen artean bitarteko egin ohi zuen, pertsonetik harremanetarako Husserl baino askoz egokiagoa baitzen. Gazterik hil zen jakintsu honek fenomenologo guztien artean eragin sakon eta ezin ahaztuzkoa izan zuen. Honek eta honen emazteak Edith-en bihotzean marka bizia utzi zuten. Harekin izandako lehenengo solasaldiaz hitz egiten digu Edith-ek: *"leben elkarriketa honen ondoren zoriontsu nengoen eta esker onez beterik. Halako pertsonarik, hain onbera denik, sekula ez nuela aurkitu uste nuen [...]"* Haren iritziz, ez da senide eta adiskideen arteko maitasun naturala; beste zerbaite da. Jainko-maitasunaren distira iruditzen zaio kristau gazte honengan somatzen duena.

1913an, sei hilabetez, adiskide minen artean Göttingen-en igarotako udaldiko ikastaldi zoragarriaren ondoren, negualdiko beste sei hilabete bakarti, triste, astun eta lanez lehertzeko modukoak datoz. Haren adiskideak joanak ziren, ordurako, Göttingendik. Eta kezka filosofiko latzek, amets txarrak bailiran, inguratzeko dute ikasle gaztea. Edith etsipenean erortzeko arriskuan dago. Bera, lagunen artean hain estimatua beti bere adimen argiagatik eta bere buruarengan erakusten zuen ziurtasunagatik, ziurtasunik gabe eta bertan behera utzia bezala aurkitzen da. Berriro ere Reinach-ek emango dio eskua. Bere lanean aurrera egiteko gogoa berotzen dio eta halako abegi gozoak laster uxatzen dizkio bere barnean hegaka bezala agertu zaizkion mamu beltzak. Reinach-en emazteak eta arreba ere laguntza handia ematen diote. Hauen aurrean bizipen berri bat izango du: Edith beti ematera eginda zegoen; beti aholkuak ematen ohituta. Sola-



Edithen doktore-diploma

saldi hauetan bere hustasunaz, berak duen besteen premiaz jabetzen da... Harreman hauetan, gertakarien harian eta batez ere pertsona on askoren bitartez, ezkutuan edo guztiz agertu gabe, gidatzen duen eskua somatzen du. Inguraturik dago...

Baina arazo askotan sarturik dugu Edith. Honela idatziko du berak: *"Oraingoz fede-arazoez ez nintzen beren-beregi sartzen; gainera beste mila gauza nituen esku artean. Giroak, inguruak zekarzkidan kinada eta eragingarriei kontra ez egiten saiatzan nintzen soilik; eta honek guztiak, ia oharkabean, barruz eraldatu egiten ninduen"*.

Doktore-tesia prestatzeak eta 1915eko urtarrilean estatuko azterketa burutzeak, hartan bete-betean sartzea eskatzen zuten. Hainbeste zereginak harrapaturik, erlijio-gaia pixka baten bigarren mailan geratuko dela dirudi. Baina arimaren sakon-sa-



konean "eraldaketa" geldiezia da.

1914an, kontrako indarren orekak luza-roago ezin iraun eta irakin bizian zen gizarateak dzart egin zuen. Lehenengo Mundu Gerra hasiko da. Gerra odoltsua eta suntsitzailea, ia Europa osoan eta bereziki Alemanian hondamenezko bere aurpegi beltza agertuko zuena. Edith Stein ez da gertaera hauetatik at geldituko. Gerra hastean, berak ikasten zuen unibertsitatea, Göttingen-goia, itxi



*Edith Breslau-n bere gurasoen etxean, 1920an*


egiten dute. Haren ikaskide eta irakasleak soldadu izateko hartzen dituzte eta beste batzuk, boluntario gisa, ematen dute izena herriaren alde zerbaitegitearren... Edith bere etxera doa berehala, familiakoekin elkartzera. Breslau gerragunetik hurbil zen eta haren ondorio batzuk berbertan bizi izan zituen. Kezkaz jarraitzen ditu gerraren gorabeherak. Egoera hartan, gerrara joan ziren bere adiskide askok bezala, herriaren alde zerbaitegin gabe ezin du etsi. Horregatik, Breslau-ra iritsi berri, ikasleentzat eratu zen erizaintzako ikastaro batean ematen du izena, eta Gurutze Gorria erakundean sartzen da, behar den lekura erizain-lanetara joateko prest. Horrela hasiko du bizitzako beste garai labur baina guztiz interesgarri bat. Behin eta berriro esan dugu Göttingen-en egiaren bila ari zela, baina bilaketa

horrekin batera gizarteko konpromisoa eta giza solidaritza dira haren gogoan gidatzen dutenak. *"Munduan giza jendearen onerako gaude"* esan zuen urte batzuk lehenago. Une honetan, herria gerran sartu berria dela ikusirik, honela dio: *"Orain nire bizitza ez da nirea. Neure indar guztiak gertakari honetan erre behar ditut"*. Esan eta egin: bere arazo pertsonalak bigarren mailan uzten ditu behar duenari laguntza ematearren. Gurutze Gorriaren deia itxaroten duen bitartean, lizentziaturako azterketa prestatu eta egiten du. Grekozko osagarritzako azterketa prestatzen hasia zela dei egiten diote. Berak ez du txistik egiten. Amaren baimenik gabe ere hara joango da: Austriako zornedunen ospitalera. 1915eko apirilean hasten da eta bost hilabete igaroko ditu lanez eta bizipenez beterik. Guztiak bere barnean irarrita geratuko zaio. Lan honetan gogokoan duena, gaixoekin harreman zuzena izatea da, haiei erizain gisa laguntza emanaz gainera, beraiek poztea, maitatzea, batez ere gehien behar zutenak. Haren maitasuna batez ere xehetasun txikietan agertzen da. Lan horretan murgildu zen, gehiegizko nekeak atsedean hartzera behartu zuen arte. 1915eko irailean irteten da Weisskirchen-etik, behin betiko zela susmatu gabe. Erizain-laguntzaile izateko azterketa egin eta grekozko azterketarako prestatu eta gairitu ondoren (Husserl haren maisuak "atseden hartzeko" era ederra... esango zuen irribarrez), ospitalea itxi egin delako albistea jasotzen du. Gurutze Gorriak ez zion dei egin eta Edith Stein ikasketetara eta doktoradutzako lanetara itzuli zen; orain indar berrituz eta heldutasun handiagoz. Gaixo eta kolpatuekin izandako harremanak asko irakatsi dio. Orain elkarrizketetan ez dio garrantzirik ematen bereaz irteteari edota bere arazoak gailen ezartzeari. Pertsonak tentuz eta gozotasunez tratatzen dauki. Gizatasunaren eskola ikasi du erizain-lanetan jardun duen bitartean. Zaurituekin eta gaixoekin harremanetan izateak asko lagundu dio Edith-i egia aurkitzen, eta, agian, baita federako bidean ere.

**4. FILOSOFO, HUSSERL-EN  
LAGUNTZAILE**

1916an Husserl Freiburg-eko unibertsitateko katedradun izendatzen dute. Edith hautatzen du bere laguntzaile berezitzat, ongi baitaki zein baliotsua den, lanerako zein gar handia duen. Freiburg-en izugarrizko lana izango du. Lehenengo eta behin doktoradutza lortzen du gorengo kalifikazioz 1917ko udaberrian. Gero, fenomenologian hasi berri diren ikasleei eskolak ematen dizkie, mintegietan egin ohi diren antzeko lan praktikoak aginduz. Gainera, lan esker-ga, ia sinestezinekoa egiten du maisuaren eskuzkribu ta-kigrafikoak sailkatzen. Hala ere, Husserl-ekin igaro zuen urte eta erdiko denbora zailtasunez beterik izango du.

Talde-lanaz ez zerozen inola ere bat irakaslea eta honen laguntzailea. Edith-ek maisu apartari beronen ikerketetan aurrera egiteko laguntza eskaini nahi zion, gai horretan adituak zirenek harengandik itxaroten zituzten berrikuntzak gauzatzeko bidean jarri, luzaro bazterrean utzita zeuden argitaratzekoak inprimategirako prestatu etab. Maisuaren eskola guztietara joan ohi zen, ideia haietara ohituta ez zeuden entzuleei azalpenak emateko. Mintegi bat zuzendu zuen helburu



*Santa Teresaren Autobiografia alemanez*


horrekin. "Hasi-masiak besterik ez ziren", dio berak, "jolas bat bezala". Dena dela, Edith-en "filosofiako haurtzaindegi" honetatik jakintsu ospetsuak sortu zirela gogoratu behar dugu bide batez...

Ia ezer ez zen burutu aurrez taxututako egitasmoen arabera. Husserl-ek takigrafiaz idatzirik zeuden bere eskuizkribuak aztertu eta sailkatzeko eskatu zion. Baina gero ez zuen ordenan jarritako material hori erabiltzen. Inork ezin igarri zer egingo zuen: beharbada, aurrez pentsatu gabeko gai bati ekingo zion, edota bat-batean hasitakoa eten... Kanpotik dei eta eskari ugari zetorzkion. Horrek guztionrek ezinezko bihurtzen zuen edozein egitasmo serio burutzea. Bere semearen heriotzak, gerrako izuikarak jakintsu honen kemena murrizten dute. Egoera honetan Edith-ek ezin inondik inora ere bere-berea izan behar zuen lana eratu.

Bere ikaskide izandako bati honela dio: "Egin otoitz nire alde". Otoitzak honezkerok badu esanahirik haren bizitzan. Lehenengo lekukotasuna da.

Husserl-ek bere gauzetarako erabili nahi duela Edith-en lana uste du honek, eta ez bien arteko elkarlanerako... Bere egitekoa eskuizkribuak ordenatzea besterik ez da funtsean, eta hori ez du beharrezkotzat jotzen. Halako batean, Husserl-ek zeregin horretarako argibide zehatzak ematen dizkionean, Edith-ek lan horretatik askatzea eskatzen dio. Husserl-ek halaxe egiten du, haren aldeko informe bikain bat idatziz eta katedra esku-ratzeko pertsona egokienetarikotzat gomendatuz. Edith-ek mi-respen handia gordeko dio beti maisu bikain honi; beti izango da harentzat maisua eta ez da izango giza argaltasunik hartaz duen irudi hori orbanduko dionik.

Pixka bat atzerantz begiratu, 1916. urtean *zebarka-mebarka* joan zela bere bizitzaren norabidea esango digu Edith Steinek. Hitz horiekin, aurrera-atzera, gora eta behera ibiltzea ez zela alferreko zera izan adierazi nahi du, bere bizitzako hurrengo etapen sartzeko baldintza eta egokitze bat baizik.



*Edith bataiatu zuten bataiarria eta San Martin eliza: "Teresa Hedwig" izena hartu zuen.*

1917. urtearen amaieran Freiburg-en abiste lazgarri bat jaso zuten: Adolf Reinach, Husserl-en seme intelektuala eta fenomenologo guztien adiskide leiala, Flandes-ko borroka-zelaian erori dela. Edith nahigabez dago eta batez ere Reinach-en emazte gaztea du gogoan. Orduan Reinach-en heriotz-ondoko lanak ordenatzeko eskaria iristen zaio Göttingen-dik, eta Edith horretarako prest agertzen da lehen-lehenengotik. Haren go-goia itun, triste dago, Reinach, Husserl-ekin batera Göttingengo eskolaren arima argitsua izan zena zendu delako. Haren

onberatasunean ikusi ahal izan zuen Edith-ek lehen aldiz Jainko-maitasunaren mundu hori. Hala ere, argi-izpi horren oroitzenak ez dio balio une honetarako. Zer esango dio etsipenean sarturik izango den haren emazteari pixka bat poztu dadin? Zer? Baina arrazoibide hutsek eta gogoeta logikoek ezin dutena Jainkoaren graziak egiten du bat-batean. Reinach zena-ren emaztea konformitatez beterik ikusteak harri eta zur uzten du Edith, berriro mundu ezkutu horretako izpi argitsuak ariman ematen diolarik. Alarguna ez dago inola ere etsita. Nahigabe handia izan arren, itxaropen santuz beterik dago; horrek sortzen ditu kontsolamendua eta bakea.

Esperientzia itzel honen aurrean arrazoiaŕen argudio guztiak deseginda gelditzen dira. Edith eraldatzen duena ez da ezagutze-argia, egiaren esentziarekin duen kontaktua baizik. Haren-tzat fedeak diz-diz egiten du gurutzearen misterioan. Edith-ek Kristoren jainkotasuna somatzen du, eta fede hau ezin izango dio ezerk ez inork kendu. Baina oraindik bide luzea izango du esperientzia honetatik ondorio guztiak atera orduko. Edith bezalako pentsalari batentzat ez da erraz zubi guztiak hautsi eta bizitza berrirantz jauzi egiten. Hil baino lehentxoago bizi-bizi kontatu zion Aita Hirschmann Jesulagunari lehen grazia hori: *"Hauxe izan zen nire lehenengo bat-egitea gurutzearekin eta gurutzea daramatenei ematen zaien jainko-bertutearekin. Orduantxe ikusi nuen neure aurrean lehen aldiz eta argi-argi Kristoren pasio salbagarritik sorturiko Eliza, heriotzaren ezte-na gainditzen duena. Une horretan nire sinesgabetasuna bertan behera erori zen eta Kristok distira biziz argi egin zuen gurutzearen misterioan"*

1918an behin betiko uzten du Freiburg. Udaberrian Göttingen-en egon zen, eta hor aurkituko dugu behin eta berriro hurrengo urtean zehar. Liburu mardul bat burutu du eta katedra lortzeko abaleginetan dihardu, baina ez dute onartzen. Emakumea delako... Emakume izateak, besterik gabe, unibertsitateko edozein katedraz jabetzeko bidea guztiz itxita izatea esan nahi zuen garai hartan. Edith Stein-ek, katoliko egin aurretik nahiz



gero, gogor borrokatuko du emakumearen eskubideen alde; areago oraindik, emakumea gizarterako, edozein lanbidetarako prestatzeko ahaleginetan jardun zuen bai idazkien bidez, bai gai horretaz hitzaldiak eginez eta bai eskolak emanez...

1920an Breslau-ra doa. Eskola partikularrak ematen ditu gurasoen etxean eta klase normalak Herri Eskola Nagusian. Hainbeste arazotan sarturik, *"zorua galtzen hasi nintzen"* idazten du. *"Neure etxean konpondu ezineko barruko krisi larrian aurkitzen nintzen"*. Haren osasunak ere txarrera egin zuen *"isilean eta inongo giza laguntzarik gabe izan nituen barneborroken ondorioz"*.

Göttingen-en ezagutu zuen Hans Lipps adiskideak bere bidea hautatu du, Edith-enaren guztiz kontrakoa. Hura ere betiko aldendu zaio. Horrek guztiak lehendik bere buruari egin ohi zizkion galderak larriago bihurtzen ditu: *"Nola zuzendu neure bizitza? Non aurkitu Jainkoa?"* Galdera hauen erantzunak jakin badakizki berak, baina ez da nahikoa jakiteaz; bizi egin behar dira eta egitez gauzatu.

##### 5. KRISTO AURKITZEN DU

Hautzaroan izan zuen judu-fedea galdu ondoren, Edith-ek zientzian jarduten du bere bizitzako galderentzat erantzun bila. Filosofiak fedearen "fenomenorantz" hurbildu bai egiten du, baina erlijio-arazoa konpondu ez. Nolabait esatearren, azkenengo bultzada eman eta arima sutan jarriko dion bitarteko bat behar du. Jainkoak ez du, gehienetan, zuzenki jokutzen, beste batzuen bidez baizik.

Ebanjelioaz gainera Sören Kierkegaard, erlijioaren filosofo danimarkarraren lanak irakurtzen ditu. Ez du guztiz betetzen filosofo honek.

1921eko martxoan Edith Stein Breslau-tik Göttingen-era doa, eta hemendik Bergzabern-era, Theodor eta Hedwig Conrad-Martius senar-emazte filosofoen etxera. Biak ziren Husserl-en ikasleak. 1921eko udan Santa Teresa Avilakoaren autobiografia

1922.  
 Anno Domini millesimo  
 nonagesimo vigesimo secundo  
 die primo Januarii baptiza-  
 ta est Editha Stein, tanqu-  
 ta annos nata, doctor philo-  
 sophiae, nata die decimo  
 Octobris anni millesimo nonagesimo  
 nonagesimo primo in Berolae, quae  
 a fideismo in religionem catholicam  
 transiit bene instructa et erudita.  
 In baptismo Joannae Theresae Schulerer  
 Matris et Theresae Schulerer  
 matris Theresae Schulerer  
 die. Vasa de Editha Stein anno 1922 in numerario  
 in Berolae in familia profana est  
 Cuius familiae  
 Editha Stein

Edithen bataio-agiria

eskuratzeko zoria izan zuen. Eskutik utzi ezinik, irakurri eta irakurri, gau osoa igaro zuen. Amaitutakoan esan omen zuen bere baitan: **"Hauxe da egia"**. Horrela amaitu zuen fedearen bila egindako ibilbide luzea. Nola gertatu zen hau guztiau? Edith-ek sekretua bere barnean gordeko du. Dena dela, horrelakoetan bat egiten dute Jainkoaren deiak eta giza erabakiak. Edith-ek berak aitortzen digu Santa Teresak bere zalantza guztiak argitu zizkiola, baina hori baino lehen, fede sakoneko pertsonak prestatu zutela, eten gabeko gogoeta eta bilaketara eraginez. Urteetan zehar egiaren bila jardun du filosofia eta zientziaren ikuspegitik. Hori "objektuen egia da". Teresa Avila-koarengan, berriz, maitasunaren egia aurkitzen du, eta hori ez da ezagupen kontua, harreman kontua baizik. Teresak maita-

sun mistikoa bizi izan zuen Jainkoarekin eta iragarritako Mesiasekin: Jesukristorekin.

Edith-ek kristau-ikasbidea eta meza-liburu katolikoa erosten ditu. Bi liburuok sakonki ikasi ondoren, katolikoan eliza baten sartzen da lehen aldiz. Bergzabern-eko parrokiari meza ematen ari dira. Edith-ek adi-adi esku hartzen du, eta zeremonia guztiak ulertzen ditu. Meza ondoren, luzaroago itxaron gabe, bataioa eskatzen dio apaizari. Hau txunditurik gelditzen da, eta bataioa hartu aurretik, prestatzeko aldia izaten dela jakinarazten dio. Baina hark ez du etsiko, eta azter dezatela eskatzen du. Azterketaren emaitzak hain bikainak izanik, bataiorako eguna jarri zen.

1922ko urteberri egunean hartuko du bataioa Eliza katolikoan. Urtarrilaren 1ean, garai hartan, Jaunaren erdaintzua ospatzen zen. Elizaren egutegi liturgikoan, jai nagusitzat sartu zen judu-errito bakarra da. Bere asmoak etxean agertzean bazekien nahigabe handia izango zutela guztiak; txarrena itxaronten zuen Edith-ek; etxetik kanpora bidaliko balute ere ez zate-



*Edith 1926an.*


keen harrituko. Baina amaren erantzuna harrigarria izan zen. Edith-ek, amaren aurrean belaunikaturik -bere begiak amaren begietan josirik- otzantasun eta irmotasunez esan zion: *Ama, katolikoa naiz*. Amak negarrari eman zion. Alabak ez zuen halakorik uste. Emakume sendoa, ez zuen ordurarte negarrez ikusi. Edith-ek ere negar egin zuen, bien malkoak nahasiz. Jai-ki eta bihotzeko aldarean eskaini zioten Jainkoari, bakoitzak bere erara, sakrifizio handi hura.

Bataioa hartu zuenetik hamar hilabetera -1922ko urrian- Edith Breslau-ra itzultzen da. Ez da han luzaro egongo. 1922ko otsailaren 2an sendotzeko sakramentua emango dio Speyer apezpikuak bere kapera pribatuan

#### 6. IRAKASLE ETA HIZLARI OSPETSUA

Bikario nagusiaren bidez domingotar lekaimeen monasterioa ezagutu zuen, baita hango ikastetxea ere, eta hantxe maistrallana egitea onartu zuen.

Arrazoi bat baino gehiago izan zituen erabaki hori hartzeko: alde batetik, bere egoera hartan, etxekoekiko askatasuna behar zuen; eta bestetik, komunitate katoliko batean bizi izanez, eliz bizitza hurbiletik ezagutu nahi zuen. Komentuak, bere kaperara eta lekaiimeek errezatzen zuten Orduen Liturgiarekin gogetarako ordu lasaiak eskaintzen zizkion; era berean, irakaskuntzarekin batera, zientzi lanetarako aukera ezin hobea zuen han. Bizitza berriak "mundutar-usaineko" gauzetatik alibait gehien urruntzea eskatzen ziolakoa zuen. Apurka-apurka Kristoren misterioa sakonduz doa, eta hura gizakiaren onerako bidalia izan zenez, bera ere, harekin bat eginez, Jainkoaren bizitza munduari ematera deitua izan dela ohartzen da. *"Jainkoaren bitariekotako bat besterik ez naiz"*, idatziko du; *"barengana eraman nahi ditut niregana etor daitezten guztiak"*. Irakaskuntzan garai hartako erara jotzen du. Bere da zorrotza bere buruarekin eta besteekin. Hala ere, bai lekaiimeek eta bai ikasleek, hari barnetik darion jainko-harmonia somatzen dute;



*Lekaiame dominikarren Speyer-eko eskola. Edith irakasle izan zen hemen*

beste aldetik, buru eta bihotz hartara emana ikusteak ziurtasuna eta adiskidetasuna sortzen ditu.

Komunikabe katolikoek ere aintzat hartzen dute Edith Stein. Geroago eta sarriago deitzen diote hitzaldiak ematera han eta hemen antolatzen diren ekintzetan, biltzarretan. Askotan jotzen dute harengana elkarte katolikoek (maistren Elkartek, emakumeen Federazioak, Akademikoen Elkartek). Maisu eta maistragaiei hobekuntzako kurtsoak ematen dizkie, artikulua idazten ditu, hainbat libururen aipamenak, irratietatik hitz egiten du...

Edith jakintza handiko emakumea da eta askotariko hitzaldiak ematen ditu. Hala ere bere gogoko gaia emakumearen hezierari dagokiona da. Liturgia eta eukaristia ditu erlijio-hezieraren abiapuntu, bide eta helburu. Orain dela bertogeita hamar urte baino gehiago, gaur egun ere bizi-bizi dauden ideiak agertu zituen; are gehiago, berak atera zuen argi eta garbi "hain zaila eta eztabaidatua den emakumearen apaizgintza".



*Edith, Speyer-en irakaste zela.*

Hitzaldi batean honako hau esango du: *"ikuspegi dogmatikotik ez dut inolako eragozpenik ikusten Elizak berrikuntza hau onar dezan"*. Berak, hala ere, ez du ikusten bere burua bokazio horretan. *"Apaiz izan edo ez, gizona nabiz emakumea Kristori jarraitzera deituak dira"*.

Hamabi urteko tartea izango da Edith katoliko egin zenetik (1921) Karmelen lekai-me sartu zen arte (1933). Alemaniako Eliz bizitzarentzat urte esanguratsuak izan ziren horiek. Fededun kementsu batzuk hasiak ziren ordurako

gheto antzeko pentsaeratik, bizitza kultural eta politikotik at zeuzkanetik, zabalera irteten. Aurrerapen eta berrikuntza gogo honek eragin handia izan zuen Edith-engan. Emakume katolikoek elkarte handien garrantziaz jabetu zen, eta berehala bat egin zuen neskatila eta emakumeen hezierari begira egiten ziren aldarrikapenekin.

Elizak liturgiari indar berria eman nahi dio. Ohiturazko fede-dea gaindituz, Elizaren lehen garaietako espiritu hura berreskuratzea da asmoa. Kristau-bizitza emankor baterako Kristorekin liturgian bat egitea ezinbestekotzat jotzen da. Bat-egite hori



izango da bizitza espiritual, sozial eta politikoan esku hartzeko abiapuntu. Erich Przywara jesulagunak Beuron-go monasterioarekin harremanetan jartzen du Edith. Hemengo abata gaztea, Rafael Walzer, izango du bere aholkulari argi eta adiskide. Beuron, bere liturgia, kulturaren zabal-kunde eta giro zientifikoarekin... Edith-en bigarren etxea bezala izango da. 1928rarte Eliz jairik handienak monasterio




*Edith Münster-en irakasle zela Alemanezko Institutuko Pedagogia zientifikoan*

honetan igaroko ditu. Hitzak neurtzen gutxik bezala dakien Edith-ek "zeruko ataria" zela esango digu. Beuron-ek barruko baretasuna, otoitz-giroa eta kanpora begira lan emankorretarako aukerak ematen dizkio.

Hizlari den aldetik, arrakasta handia izango du Alemanian, Suitzan eta Austrian. Salzburg-en 1930ean izandako hitzaldia izango da, ezbairik gabe, sonatuena. Emakumearen bokazio eta eskubideei buruzkoa zen gaia. Akademiko Katoliken Federazioaren biltzar nagusian hitz egin zuen emakume bakarra izan zen.

Zortzi urtean egon zen Speyer-en eskolak ematen Santa Magdalena monasterioan, eta azkenerako ohartu zen aldi bere-



*Koloniako lekaike karmeldarren komentua*

an eskolak ematea eta lan zientifikoa egitea ezinezkoa zela, eta bere irakasle-lana uztea erabaki zuen lan garrantzitsu bat burutzeko: "aktu eta potentzia". 1930ean eta 1931n San Tomas-en lan batzuen itzulpena argitaratzen du bi liburukitan. Dena dela, oraindik bere ogibidea ez du argi. Unibertsitatean katedra lortzeko ahaleginak egingo ditu bigarrenez, baina alferrik. Lan zientifikorako zituen beste asmo batzuk ere ezerezean geratzen zaizkio. Baina ez du axola. Gauzek horrelaxe izan behar zutelako ustea du. Egoera hartan, Maistra katolikoek Elkar-tearen bitartez, Münster-eko Pedagogia Zientifikoko Institutu Alemanean irakasle-lana eskaintzen diote, eta haraxe doa 1932ko otsailean. Antropologia eta pedagogia izango dira

emango dituen gaiak. Urtebete iraun zuen lan honetan. Haren lehenengo egitekoa bertara egokitzea zen. Institutuko beste irakasle batzuekin, Unibertsitateko katedradun eta ikasleekin harremanetan jartzen da. Bere eskolak hitzaldiekin eta talde-lanarekin txandatzten ditu. Arratsetako eztabaidak, irakurketa osagarriak eta jasotako gutunak kontuan hartu behar ditu.

Bada irakaskuntzaren gainerik haren gogo biziki zirikatzen duen beste zerbait: bere lan zientifikoa. Urte honetan, Juvisy-ko (Paris) Nazioarteko Tomisten Biltzarrerako gonbidapena jaso zuen. Maritain-ekin harremana izateko zoria izan zuen hor.

Kezkaturik dago. Egin nahi lukeenaren eta egin ahal duenaren artean tarte izugarria dagoela ohartzen da. Guztia berregitea behar-beharrezkoa dela uste du filosofiari eta teologiari bete-betean emanda; baina une honetan bizi duen egoeran hori ezin du. Gaztetako bere buruarekiko ziurtasuna eta denerrako bera nahiko zelako ustea datozkio gogora... Autokritika egiten du eta horrek bere ezina ezagutzen laguntzen dio; berak unean-unean ahal duena baizik ez duela egin behar, eta beste batzuei argi egiten eta haiei bideak irekitzen saiatu behar duela.

Edith Stein-i mingarri zaio egoera hau; hala ere, grazia handiko garaitzat du aldi hori. Bere barruan apurka-apurka aurrera egin eta aitzindaritza utzi behar duelako komentzimendua du.

1933ko hasieran Alemaniako askoren bizitzek goitik beherako aldaketa jasango dute. Edith Stein-enak ere bai. Juduen aurkako eraso bortitzek Münster-ko haren irakasle-lanari azken kolpea ematen diote. Edith begi zorrotzekoa zen bizitza publiko eta espirituala aztertzeko, eta laster ohartu zen zer zetorren. Aita Santu Pio XI.ari egindako gutunean, juduen aurka sortu den gorrotoa azaldu ondoren, hori kristauen eta elizen aurka burutuko ziren eraso ikaragarrien hasiera baizik ez zela oharrarazten dio. Gaur egun, guztiok dakigu oso zuzen zebilela horretan; baina Erromatik ez zuen erantzunik jaso.

## 7. KARMELDAR: GUZTIEN ALDE JAINKOAREKIN BIZI

Azken urteetan, Santa Teresa Avilakoaren lanak irakurriak zituen Edith Stein-ek. Honezkero Teresaren bidea jarraitzeko ordua iritsi zaiola ohartzen da. Ez da hori hausnartu gabeko erabakia. Ez ote da gainera zetorren jazarpenari ihes egiteko ahalegina? Hark, ordea, Jauna bera dela sinesten du judu neba-ahizpengan sufritzen ari dena. Guztien ordezkari izan nahi du; haiengatik guztiengatik Jaunarekin estu-estu elkartu, haren pasio salbagarrian esku hartuz. Karmelen sartu behar duela somatzen du argi-argi. Atzerrian irakasteko eskaintzak alde batera uzten ditu. Ordu horren zain egon da orain dela ia hamabi urtez gero; baina eragozpenak izan ditu. Urte horietan ukatu egin diote baimena behin eta berriro, bere amagatik eta batez ere aspaldidanik katolikoen artean egin ohi zuen lanerako beharrezkotzat jotzen zelako. Eragozpen horiek bere arima-zu-

*Ih. Schwester Teresa Benedicta a Cruce, mache  
meine Professe der einfachen, ewigen Gelübde und  
versprochenen Gehorsam, Keuschheit und Armut Gott,  
unsrem Herrn, der allseitigsten Jungfrau Maria  
von Berge Karol, dem Generaloberen des Ordens  
der Unbescholtenen Karmeliten und Theres, ehrwür-  
dige Mutter Priorin, sowie Threm Nachfolgern,  
nach der ursprünglichen Regel des gewesenen Or-  
dens und unserm Satzungen bis zum Tode:  
Iste mea Commis reddam, in contemptu  
omnis aspectu eius, in actu domus Theres.*

Karmel Kóns-Lindenthal  
21. April 1938.

Teresa Benediktaren (Edithen) profesa nagusiko agiria

zendariengandik datoz, batez ere Schwind kalonjearengandik. Honen ustez lan hobea egin zezakeen Edith-ek munduan komentuan baino. Beuron-go abata ere iritzi berekoa da, baina Schwind baino bigunagoa. Erich Przywara-k ere bat egingo du aurreko biek. Ezezkoan gogorren zegoena, Schwind kalonjea, Jainkoak eraman zuen... eta hauek, gauzak nola zihoazen ikusiz, askatasun osoa eman zioten karmeldar izateko. Azken erabakia 1933ko apirilaren 30ean hartuko du. Artzain Onaren igandea zen. Hamahiru orduko otoitzaldia ospatzen zen. Arratsean elizan sartu eta honela zioen bere baitan:

*"ez naiz bemendik jaikiko Karmelen sar naitekeen argi ikusi arte"*. Azken bedeinkazioa ematerakoan, Artzain Onaren baiezkotza jaso zuen. Barruko pozak gainez egiten zion. *"Helmugara iritsi denaren bakeak bete ninduen"* diosku berak. Bihotza haustekoa izan zen zahartzaroan ongi sartua zen bere ama maiteari eta gainerako senideei egindako agurra. Amak 84 urte ditu. Ama negarrez eta neba-ahizpak harrituta, erabaki hori ulertu ezinik..



*Holandara joan aurretik pasaporterako egindako argazkia*



*Edithen gela Echt-eko komentuan*

Koloniako karmeldarren komentuan sartzen da 1933ko urriaren 14an. Lekaimé-bizitzako lehen urteak bare-bare doaz. 1934ko apirilaren 15ean hartzen du abitua, Teresa Benedikta Gurutzekoa izen berria hartuz. Oso erraz egokitzen da komunitateko orduetara. Gainera, lan zientifikoetan jarduteko bai-mena du.

Zergatik hautatu ote zuen Edith Stein-ek karmeldarren ordena eta ez benediktarra edo domingotarra, hauekin harreman estuagoak izanik? Adituek diotenez, Santa Teresa Avilako arekin aurkitzea erabakigarria izan zen, baina karmeldarren ordenak, Palestinan, bere arbasoen lurraldean jatorria izateak ere izango zuen zerikusia. 1935eko apirilaren 21ean egin zuen profesia.

Edith-ek ez ditu hausten kanpokoekiko harremanak. 350 gutun ditugu bereak eta haietatik 200 komentutik idatzitakoak dira. Astero idazten dio amari kartatxo bat, baina ez du honengandik egundo erantzunik jasoko. Behin Rosaren gutun batean



esalditxo bat, besterik ez. Ez da sekula joango bere alaba txikien eta maiteena ikustera. 1936ko irailaren 14an hil zen ama 87 urte zituela. Egun horretan Gurutze Santuaren Gorapena ospatzen du Elizak eta karmeldarrek euren botoak berritzen dituzte. Amak ez zituen ulertu hemen lurtean alabak hartu zituen erabaki batzuk... Hura hil ondoren "*orain betiko bizitzan dagoenez gero, gauza guztiak ulertuko ditu*" idatziko du Edith-ek

Komentutik sarri igaroko dira Peter Wust, Erich Przywara, Rafael Walzer, G. von Le Fort etab. Idazten jarraitzen du; liburuak eta artikuluak. Santa Teresaren eta Santa Margaritaren bizitzak idazten ditu; lehendik hasia zuen Tomas Akinokoaren idazlan batzuen itzulpena amaitzen du; baina haren lan sonatua, haren lan bikaina *Endliches und Ewiges* ("Izaki mugatua eta izaki mugagabea") dugu. 1936an amaitu zuen, baina ez zen agertu nazien beldurrez. 1950ean ikusi zuen argia. Dionisio Areopagitari buruzko lan bat ere idatzi zuen. Hau 1941. urtean idatzi zuen. Urte berean *Kreuzeswissenschaft* ("Gurutzearen zientzia") lanari ekin zion. Lan honetan, Joan Gurutzekoaren bizitza eta irakatsiak agertzen dizkigu Kristoren gurutzearekin bat eginik. Lan hau, dirudieenez, ez zuen guztiz osatu. Beharbada, bazuen horretaz esatekorik gehiago. Baina Hitler-en poliziak ez zion gehiagorako astirik eman...



Edith bere ahizpa Erroserekin.



Auguste Stein (ezkongaitan Courant),  
Edithen ama (1849-1936)

Karmel bere egiako etxetzat du. Zer du, bada, Karmelek Edith-ek bere etxetzat hartzeko? Elizaren otoitza batez ere; otoitz liturgikoa baino gehiago, behar-bada, bihotzetik bihotzera Jaunarekin izan ohi den maitasun-harremana. Zer da Elizaren otoitza, Jainkoaren maitale handiak berari eskainirik bizi izatea baizik. Maitasuna, Edith Stein-ek Ordenako santuengandik ikasi du: Teresa Avilakoagandik, Joan Gurutzekoagandik, Teresa Lisieux-koagandik. Santa hau aipatuz, honako hau idazten du gutun batean: *"nire us-tez, hemen giza bizitza Jainkoaren maitasunak*

*moldatzen du, azken xehetasunetaraino, moldatu ere. Ez dut gauza handiagorik ezagutzen eta hauxe eraman nahi nuke al bait gehien neure bizitzara eta nirekin bizi diren guztien bizitzara".*

Komentuan izan zuen poztasunik handienetik bere ahizpa Rosa katoliko egitea izan zen. Gabon gauean, 1936ko abenduaren 24an eman zioten bataioa Kolonia-Lindenthal-eko Santa Isabel ospitaleko kaperan. Hain zuzen ere ospitale hartan zen Edith Stein ere, eskaileretatik erori eta haustura bat izan zuelako eta horrela zeremonia hartan esku hartu ahal izan zuen.





*Edithen komunitateko jantokia Kolonian*

1938ko apirilaren 21ean bere profesia nagusia egin zuen ahizpa Teresa Benediktak. Pixka bat lehenago, aipatzea merezi duen gorabehera bat izan zen komunitatean: apirilaren 10ean Hitler-ek referendum-era deitu zuen, bere sistemari lege-onarpena edo legezko-itxura emateko. Guztiek zekiten hura ez zela inola ere librea, baina "ezetza" emateak ondorio ikaragarriak izan zitzaketen; dena dela, emaitzak beren gogara aldatzea, horrelakoetan, gauzarik normalena izan ohi da... Botoa eman nahiz ez eman,

berdintsu delako kontuak entzun zituen Edith Stein-ek eta horrek bere onetik atera zuen. Botorik ez ematea? Ez horixe! Garbi eta ozen agertu zuen horrelako sistema antikristau baten aurka guztiek eman behar zutela botoa.

#### 8. AUSCHWITZ-EN MARTIRI

1938an *Kristal bautstak* deituriko gau ospetsuaren (azaroaren 9 eta 10 artekoa) ondoren, Alemanian juduen aurkako jorra handituz zihola ikusirik, komunitatea arriskutik gordetzearen, Koloniatik alde egitea eskatu zuen. 1938ko abenduaren

3In irten zen Koloniatik. Oraingoan ere senak eman zion Koloniatik irte-tea betiko izango zela. Echt-era joan zen, karmeldarrek Holandako herri txiki horretan zuten komentura. Edith-i abegi gozoa egiten diote hango lekai-meek eta laster bere etxean bezala izango da han. Holanda gerran sartu ez zenez gero, Echt-en gordeleku segurua izango zuela uste zuten Koloniako lekaime-ek. Baina han ihes-lari asko da, eta bertan luzaroan bi-



*Echt-eko Karmelgo komunitatea, gorengo lerroan ezkerretara Edith*

zitzeko baimena lortzea ez da erraza. Gauzak zailago eta larriago jarriko dira Rosa, Edith-en ahizpa eta hau bezala katoliko egina, Echt-era datorrenean. Rosa komentuko atezain jartzea lortzen dute. Bi ahizpak esker onez beterik daude guztiagatik; baita elkarrekin egoteko aukera dutelako ere. Hala ere egoera larrian aurkitzen dira biak. Haien etxeakoak munduan zehar sakabanaturik daude, Jainkoak bakarrik dakien lekuetan. Alemanian gelditu diren gainerakoak heriotzaren atzaparra noiz gainera eroriko daude...

Holanda hartu ondoren, hemen ere juduen aurkako eraso gogorra hasten da. Komentura albiste beldurgarriak iristen dira

+ Liebe Mutter, bitte, erlaube mir,  
 mich dem Herzog Jose als Löwenopfer für  
 den wahren Frieden anzubieten: daß die  
 Herrschaft des Antikristus wenn möglich  
 ohne einen neuen Weltkrieg zusammen-  
 bricht und eine neue Ordnung aufge-  
 richtet werden kann. Ich möchte es  
 heute noch, weil es die 12. Stunde ist.  
 Ich weiß, daß ich ein Nichts bin, aber  
 Jesus will es, und Er wird gerufen in  
 diesen Tagen noch viele andere dazu  
 rufen.

Passionssamstag 26. IV. 39

Bigarren Mundu-gerra hasi baino lehenago, 5 hitabete lehenago,  
 Edith-ek bere bizia eskaintzen du antikristoa (nazismoa)  
 gainditzeko, ahal balitz bigarren Mundu gerra gabe

eta Rosak, atezain dagoenez gero, jakinarazten dizkie besteei.  
 Guztiak urduritasunez beterik daude. Berri triste horiek pixka  
 bat ahantz ditzan, ama nagusiak Joan Gurutzekoaren bizitza eta  
 doktrinaz liburu bat idazteko eskatzen dio, horrela, bide batez,  
 haren jaiotzako laugarren mendeurrenerako liburu eder bat  
 izan dezakete esku artean. Hauxe da gorago aipatu dugun  
*Kreuzwissenschaft* ("Gurutzearen Zientzia"). Grazia handitzat  
 izan zuen Edith-ek liburu hori idatzi ahal izana, horrela Joan  
 Gurutzekoa ezagutzeko parada izan zuelako. Gauzak egunetik  
 egunera gaizkiago ikusiz, Edith Stein-ek bere testamentua egi-  
 ten du. Testamentu horretan bere liburu eta eskuzkribuak ai-  
 patzen dira, baina testamentu honek batez ere mezu espirituala  
 du: eskerrak ematen dizkie bera etxean hartu dutenei; eta az-

ken partean bere bizitza eskaintzen du Jainkoagatik, Elizagatik, Karnelegatik, judu-herriagatik, bakeagatik, bere tartekoengatik. Testamentuak hil baino hiru urte lehenagoko data dauka.

Suitzara ihes egiteko asmoa hutsean geratuko da. Holandako apezpikuen elkarteak idazki ausart eta gogorra egingo dute juduen deportazioen aurka; idazki hori Holandako eliza guztietan irakurtzen da. Gestaporen eta SSren erasoaldia berehalaxe sortzen da. 1942ko abuztuaren 2an Edith eta Rosa Stein beste judu-arrazako katoliko askorekin batera atxilotuak eta Amersfoort eta Westerbork-eko kontzentrazio-zelaietara eramana dira. Abuztuaren 7an Ekialdera eramaten dituzte. Hemendik aurrera ez dugu bi ahizpen berririk izango. Geroago egin dako ikerketen arabera, biak Poloniako Auschwitz-ko gas-kameretan hil zituzten abuztuaren 9an.

Lerro hauetan, irudi azkarretan bezala batetik bestera jauzika, Edith Stein-en nortasunaren printzak agertu nahi izan ditugu; haren giza izaera, filosofian barrena egin zuen bidearen aipamen xumea, Jainko-maitasunak harrapaturik izan zuen abentura mistikoaren deskripzio laburra.

*Luis Baraiazarra Txertudi*